

ORDEZKAPENAK KUDEATZEKO JARRAIBIDE BERRIAK HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN

Atzo Haurreskolak Partzuergoak bidali zituen COVIDak izan duen gorakada dela eta hezitzaileen ordezkapenak kudeatzeko jarraibide berriak haurreskola guztietara. Honen aurrean, LAB sindikatuak gaur bertan gaiaren inguruko hausnarketa eta eskaera zehatzak egin dizkio Partzuergoari. Izan ere, LAB sindikatutik uste dugu haurreskoletan egun dauden beharrak asetzeko neurriak izateaz gain, kudeaketa arloan dauden gabeziak estaltzeko hartutako erabakia dela.

Goizeko 9:30etatik aurrera, egun berean dauden beharrak beteko dira: Kasu askotan, aurreko arratsaldetik edo egun bereko lehenengo ordutik egiten da ordezkapenaren eskaera (gaixotasuna ezagutu eta jarraian) eta 9:30ak arte itxarotea, suposatzen du kasu batzuetan egunean bertan ezinezkoa izango dela hutsunea betetzea.

Horrez gain, LAB sindikatuak sinatutako ordezkoen araudian (5.3.v artikuluan) jasotzen da ordezkoek 9,30ak arte egunean bertan joateko egindako lan eskaintzari uko egiteko eskubidea.

Hau guztia kontuan harturik, hauek dira **LAB sindikatuak** Haurreskolak Partzuergoari gai honekin egindako eskaerak:

-Haurreskoletan eta kudeaketa arloan dauden langileen beharrak eta ordezkapenak lehenengo egunetik betetzea.

-Egunean bertan betetzeko diren ordezkapenak 9,30ak baino lehen egiten hasia.

-Haurreskolak Partzuergoarekin izandako azken bileran egin genuen moduan, Haurreskolak Partzuergoari eta Hezkuntza Sailari eskatzen diegu “Ordezlagunea” haurreskoletan ere lehenbailehen martxan jartzeko.

-LAB sindikatuan jakin badakigu Covidaren pandemiak haurreskoletan eta kudeaketan sortu duela gainzama. Hori dela eta, haurreskoletan eta kudeaketako sailean behar besteko hornikuntza material eta pertsonala jar dezala.

Animo eta aurrera!

